



Irudia: Unai Fernandez de Betoño

Kirolaren bueltan

Esan beharra dago. Jendea kirolzalea da, bai. Kirolaz gozatzen du. Baina kirola egiten baino, gehiago gozatzen du kirola ikusten. Ikuskizunak du garrantzia. Nork bere taldeari animatzeak jendea txunditzen du. Agintariek hau bera badakite. Jendea distraitzeko aukera paregabea izaten da, batez ere krisi-garai honetan. Tira, agintari ugari distraitzen da, bai, kirol-ikuskizunekin. Eta kirol-taldeen ogasunari zordundutako diru-kantitateak barkatzera eramaten ditu egoera distraitu honek.

BBVA ligako euskal futbol-talde nagusiak bakarrik harturik, aurrekontua 130 milioikoa da guztira. Bada diru parrasta handi bat. Baina, talde horiek euren aurrekontua baino gehiago mugiarazten dute. Esate baterako, kirol-instalazioak diru-laguntza publikoekin eginak dira. Telebista publikoek ere euren atzetik jarraitzen dute, itsu-itsu. Adituek diotenez, talde hauek ekonomiaren % 1 mugiarazten dute. Ematen du ez dela proportzio handia eta gure ekonomia oparoak jasan lezakeela horrelako egoera bat. Baina ez. Izan ere, aurtun, Hego Euskal Herriko ekonomia % 0,5 inguru jaitsiko da. Bestalde, hain modan dagoen ikerketari BPGaren % 2 esleitzen zaio gurean. Herrialde aurreratuenek % 3 inguru eskaintzen diote. Ikerketa (edo kultura) maila herrialde nordikoen pare izan dezagun futbolaz gozatzeari uko egin behar diogunik ez dugu aldarrikatuko. Baina, lagunak, ez ote da garaia gizarteak apurka-apurka ohitura batzuk aldatu? Kirolarekin miarrespen gutxiago eta praktika gehiago, alegia.

Krisi-garaietan, lan gutxiago izaten denez, aisialdirako denbora gehiago izaten da. Aspaldi utzita genituen eginbeharrei ekiten diegu. Footing apur bat, bizikletan ibili, esku-pilotan, mendian ibili eta beste. Garai bateko herri-kirolak, lanaren imitazioz sorturiko lehiaketak ziren. Gaur egun, ordenagailuari lotuta bizi garen honetan, zein izango ote da hurrengo herri-kirola? Bideo-jokoa?

